

PRENTSAURREKOA

1. SARRERA

Kaixo, egunon guztioi, lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu etorri zareten komunikabide guztiei. Gaurko prentsaurrekoan, Juaristi eta Aitek-eko langileok jasaten ari garen egoeraren berri emateko bildu gara.

Urtebete daramagu Zuzendaritzaren aldetik proposamen zehatzik eta bideragarritasun plan argirik gabe eta **egoera hau ezin da gehiago luzatu.**

Juaristi eta Aitek-eko langileok, enpresaren hobebetaz arduraz jokatu dugu, baina egoera jasanezina bihurtu da. Enpresa ondoratzen ari da Zuzendaritzaren utzikeriaren ondorioz eta **ezin dugu onartu gure lanpostuak, herriko jarduera ekonomikoa eta gure etorkizuna arriskuan jartzea.**

Ozen eta argi esan nahi dugu nahikoa dela. Ez gara isilduko, ezin dugu gehiago itxaron, langileon duintasuna ez dago salgai.

Hau ez da bi enpresen arazoa soilik, eskualde osoarena baizik. 130 lan postu eta hainbat familia daude arriskuan. Gaur, erantzukizunez eta irmotasunez hitz egingo dugu. **Gure aldarrikapena argia da: aldaketa sakona eta berehalakoa behar da.**

Azpimarratu beharreko puntu nagusiak:

1. Langileekin zorrak:
 - 4 nomina, 5 hilabeteko paga extra partziala eta 16 hilabeteko Geroa (pentsioak) ordaindu gabe.
2. Nagusiaren partetik, utzikeria osoa. Ez da aurkeztzen inolako plan sinesgarriarik enpresa eta lanpostuak bermatzeko.
3. Maiatzaz geroztik ERTE-an egon arren, adostutako baldintzak ez betetzea.
4. Nagusiaren partetik, langileei informazioa ezkutatzea. Adibidez, pabiloiaren salmenta.
5. Nagusiaren partetik, ordainketetan langileen artean sailkapen arbitrarioak eta bidegabeak ezartzea. Irizpide gardenik gabe eta modu guztiz interesatuan soldaten artean desberdintasunak egon dira, langileen batasuna apurtu eta indar kolektiboa ahultzearen helburuarekin.

Nagusiaren partetik, ezkutuko itxiera batera garamatzala argi daukagu. Langileen % 40a alde egitera behartua izan da, inolako kalte ordainik jaso gabe.

Guzti honen aurrean, gure eskaerak honako hauek dira.

- 1- Zorrak eguneratzea.
- 2- Zuzendaritzan berehalako aldaketa sakona, gardentasunean, profesionaltasunean eta parte hartzean oinarritua.
- 3- Plan serio eta bideragarria aurkeztea, enpresaren eta lanpostuen etorkizuna bermatuko duena.
- 4- Instituzioen inplikazioa, lanpostuak ez galtzeko eta langileen eskubideak babesteko.

Langileen parte-hartzerik gabe, Juaristi eta Aitek ITXIERARA kondenatuak daude.

Guztiori dei egiten dizuegu datorren ostiralean irailaren 26an egingo den MANIFESTAZIOAN parte hartzera.

GORA LANGILEEN BORROKA!

Eskerrik asko.